

URAREN EUSKAL AGENTZIARAKO EBALUAZIO ETA PLANGINTZA TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO PROZESUA

1. FASEA A: TEST PROBA 2026ko urtarilaren 21a

Proba egiteko denbora: ordu bat

Probak 40 galdera ditu (gehi erreserbako bost). 1. Fase A-ko probako gehieneko puntuazioa 20 puntu dira.

Erantzun bakoitza honela ebaluatuko da:

- Erantzun zuzena: **0,5 puntu**
- Erantzun okerra: **-0,166 puntu**
- Erantzunik ez: **0 puntu**
-

Proba zuzendu ondorengo azken kalkuluaren emaitza aldeztu aurretik biribildutako hamartar batekin adieraziko da.

1. Uraren Esparru Zuzentzarua hau da:

- a) 2000/60/EE
- b) 2007/60/EE
- c) 2005/60/EE
- d) Aurrekoetako bat ere ez

2. Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen Azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuaren arabera, hauetatik zein EZ da Uraren Euskal Agentziaren eginkizuna?

- a) EAEko Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- b) Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.
- c) KBE ibai-eremuen kudeaketa.
- d) Itsas eta lehorren arteko jabari publiko hidraulikoa babesteko zortasun-eremuko baimenak, eta haiek zaintzea, ikuskatzea eta zehatzea.

3. Plan Hidrologikoak:

- a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- b) Ez zaie ingurumen-ebaluaziorik egiten, helburuak batez ere ingurumenekoak direlako.
- c) Ingurumen-ebaluazio sinplifikatua egiten zaie, beren helburuak batez ere ingurumenekoak direlako.
- d) Ingurumen-ebaluazioa egin behar zaie, baldin eta egiturazko neurriak hartzen badituzte

4. Aniztasun biologikoaren kontzeptuak hiru osagai ditu: espezieen aniztasuna, ekosistemen aniztasuna eta:

- a) Aniztasun molekularra
- b) Dibertsitate genetikoa
- c) Aniztasun etnikoa
- d) Morfología-aniztasuna

5. Erlikia-espezietzat hartzen da:

- a) Iraganean ugaria izan zen, eta gaur egun isolatuta dago lurralde txikietan
- b) Iraganean ugaria izan zen eta gaur egun desagertu egin da
- c) Iraganean urria izan zen, eta orain lurralde zabalak hartzen ditu
- d) Iraganean ugaria izan zen, eta gaur egun lurralde zabalak hartzen ditu

6. Ekosistema bat ikuspegi ekologikotik leheneratutzat jotzen da honako kasu hauetan:

- a) Baliabide naturalen ustiapen zuhurra egin daiteke, degradazioa eragin zuena baino presio-maila txikiagoarekin.
- b) Behar adina elementu biotiko eta abiotiko ditu, autoerregulatu egiten da, erresilientzia erakusten du eta fluxuak ezartzen ditu beste ekosistema batzuekin
- c) Inguruko basaespezie guztiak ditu, florakoak zein faunakoak, gutxienez hiru ziklo biologiko jarraitutan.
- d) Baliabide hidrikoen kantitate eta kalitate nahikoa du, eta ez du espezie exotiko inbaditzaileak.

7. Baso mota hauetatik, zein dagokio ibilguarekiko lehen lerroan dagoen ibaiertzeko baso bati, lurzoru oso hezeetan edo aldizkako ur-goraldiek eragindako putzuetan.

- a) Pagadi azidofilo atlantikoak
- b) Koskojala
- c) Baso laurifolioak
- d) Zuhaixka-sahastiak eta haltzadiak

8. Euskadiko natura-ondarea babesteko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen arabera, baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena?

- a) Gaur egun oraindik ez da argitaratu Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogoa
- b) Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa 9/2021 Legearen eranskin gisa argitaratu zen.
- c) Espezie bat katalogoan sartzeak berekin ekarriko du debekatuta egotea bizirik dauden aleak, haien hondakinak edo bizirik iraun edo ugaltu daitezkeen propaguluak edukitzea, landatzea edo haztea, garraiatzea, trafikatzeta eta salerostea.
- d) Flora-espezie exotiko inbaditzaileak dituzten lursailetakoko pertsona fisiko edo juridikoak behartuta daude espezie horiek kontrolatzeko eta ezabatzeko beharrezko neurriak hartzera.

9. Adierazi espezie exotiko inbaditzaile horietako zein den iratzea, eta EAEn hauteman den?

- a) *Phyllostachys aurea*
- b) *Baccharis halimifolia*
- c) *Azolla filiculoides*
- d) *Ludwigia grandiflora*

10. Leku hauetako zein EZ dago Ramsarreko Hitzarmenean sartuta?

- a) Gesaltza Añana
- b) Txingudiko badia
- c) Santiagolarrako hezegunea Uribarri urtegian
- d) Carravalsecako urmaela

11. Zein alderdi jorratu behar ditu administrazio hidraulikoaren txostenak urbanizazio-jarduketak antolatzekeo tresnen ingurumen-ebaluazioaren prozeduretan, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera?:

- a) Garapen-eremuan dauden baliabideen egoerari buruz.
- b) Eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide hidrikoak egoteari buruz.
- c) Planaren eremuko ibilguen ingurumen-baldintzei buruz.
- d) Planaren eremuko administrazio hidraulikoaren antolamenduri buruz.

12. EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera, Hezegune Babestuen Katalogoan sartzen dira, hasiera batean, honako hezegune hauek:

- a) Hezeguneen LAPEko I. eta II. taldeak
- b) Hezeguneen LAPEko I., II. eta III. taldeak
- c) Hezeguneen LAPEko II. eta III. taldeak
- d) Guztiak okerrak

13. Gernikako UHren babes-perimetroa deklaratzeko duen ebazpenaren arabera, babes-perimetroko eremu guztietan EZ dago araututa erabilera edo jarduerak:

- a) Jabari publiko hidraulikoko lurrazaleko ur-bilketak.
- b) Lurpeko garajeak
- c) Hartune-putzu berriak
- d) Putzune beltzak, hobi septikoak eta arazketa biologikoko putzuak

14. Uraren Euskal Agentziaren eskumena da, besteak beste, honako arro hauetan baimenak eta emakidak ebatzea:

- a) Oria eta Urola
- b) Zadorra eta Bidasoa
- c) Agüera eta Artibai
- d) Barbadun eta Deba

15. Ibai-kategoriako ur-masen egoera honako hauen analisiaren bidez zehazten da:

- a) Adierazle hidraulikoak, kimikoak eta fisiko-kimikoak
- b) Adierazle kualitatiboak, foronomikoak, kimikoak eta fisiko-kimikoak
- c) Adierazle biologikoak, hidraulikoak eta fisiko-kimikoak
- d) Adierazle biologikoak, hidromorfologikoak, kimikoak eta fisiko-kimikoak

16. Itsas eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazioa:

- a) Posible da, baldin eta dagokion baimena izapidetu bada.
- b) Ezinezkoa da inola ere.
- c) Beren izaeratik beste kokapenik izan ezin duten jarduerak edo instalazioetarako bakarrik baimendu ahal izango da.
- d) Kirol- eta arrantza-jardueretarako bakarrik baimendu ahal izango da.

**17. Kostaldee bidezko Legean eta haren erregelamenduan ezarritako bidez-
zortasuna lur-zerrenda bati egokituko zaio:?**

- a) Hamar metrokoa, itsasertzaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta.
- b) Sei metrokoa, itsas-lehorreko jabari publikoaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta.
- c) Hamar metro, itsas-lehorreko jabari publikoaren barruko mugatik barrurantz neurtuta.
- d) Sei metrokoa, lehorrerantz neurtuta, itsasertzaren barruko mugatik aurrera.

**18. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko arro batean dagoen udal-
titulartasuneko kolektore batera isurketa eskatzen duen industria baten
kasuan, zein erakundek du baimen hori emateko eskumena?**

- a) Uraren Euskal Agentziak
- b) Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak
- c) Toki-erakunde eskudunak
- d) Kolektorerak isurtzeko ez da baimenik behar

19. Plan hidrologikoen izapideak, edukia eta xedapenak:

- a) Ez dira batera jorratu Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planek dagozkienekin, errege-dekretu desberdinen bidez onartzen baitira.
- b) Ez dira batera jorratu demarkazio bakoitzeko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planek dagozkienekin, Europako zuzentarau desberdinetatik baitatoz.
- c) Ez dira batera jorratu demarkazio bakoitzeko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planek dagozkienekin, helburu eta eskakizun desberdinak dituztelako.
- d) Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planekin koordinatu eta inbrikatu du, dauden sinergiak aprobetxatzeko eta bi planetako helburu guztiak lortu ahal izateko.

20. Plan hidrologikoen honako hauek identifikatu eta ezaugarritu behar dituzte:

- a) Ur-masa kontinental naturalak, horien gainazaleko eta lurpeko urak barne
- b) Ibaiak, lakuak, hezeguneak eta estuarioak
- c) Azaleko ur-masak, kontinentalak, kostaldekoak eta trantsiziokoak, eta lurpeko ur-masak.
- d) Azaleko eta lurpeko ur-masa naturalak eta artifizialak.

21. Hauek dira, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen gaineko presio garrantzitsuenak:

- a) Ura ateratzearekin zerikusia dutenak.
- b) Hiri- eta industria-isurketekin eta lurrazaleko ur-masen aldaketa morfologikoekin lotutakoak.
- c) Ura ateratzearekin eta presio lausoekin lotutakoak.
- d) Presio lausoekin lotutakoak

22. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan, herrien hornidurarako emakidak:

- a) Beti daude emari ekologikoen araubidearen gainetik.
- b) Ez daude sekula emari ekologikoen araubidearen gainetik.
- c) 2.000 biztanletik gorako populazio kasuetan daude, bakarrik, emari ekologikoen araubidearen gainetik.
- d) Emari ekologikoen araubidearen gainetik daude lehorte kasuetan, hornidura-alternatiba bideragarriarik ez badago, eta betiere, baldintza batzuk betetzen badira.

23. Zortasun-eremuak helburu hauek ditu:

- a) Ibai-ekosistema eta jabari publiko hidraulikoa babestea.
- b) Oinezkoentzako eta zaintza-, kontserbazio- eta salbamendu-zerbitzuak garatzeko pasabide publikoak, salbu eta, ingurumen- edo segurtasun-arrazoiengatik, arroko erakundeak horiek mugatzea komeni dela uste badu.
- c) Ontziak noizean behin eta behar izanez gero lehorreratzea eta amarratzea.
- d) Aipatutako kasu guztiak ditu helburu.

24. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera:

- a) Ibaia bideratu daiteke landa-eremuko lurzoru-eremuetan, gehienez ere 10 urteko errepikatze-denborarako.
- b) Urbanizatutako lurzoru batean pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren landa-egoerako lurzoruko egiturazko jarduketak, salbuespen gisa, uholde-arriskua duen eremuaren barruan egin ahal izango dira 100 urteko errepikatze-denborarako.
- c) Ibai-tarte bat Bideratzeko Planaren definizioan, helburutzat hartuko da ibilguan 500 urteko errepikatze-denborako uraldia jasotzea eremu urbanizatuan eta 100 urtekoa landa-eremuan.
- d) Ikastetxeak, osasun-zentroak, suhiltzaile-parkeak eta polizia- eta babes zibileko instalazioak uholde-arriskua duen eremu urbanizatuan soilik kokatu ahal izango dira, betiere 100 urteko errepikatze-denborako uraldiaren gainetik, 10.000 biztanletik gorako guneeetan.

25. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudia batera aplikatuta, nork baimenduko ditu ur jabari publikoaren polizia-eremutik kanpo urak har dezakeen eremuko erabilerak eta jarduerak?

- a) Erkidego barneko arroetan Uraren Euskal Agentziak baimenduko ditu, agintaritza urbanistikoak aginduzko txosten loteslea egin ondoren.
- b) Lurralde eta hirigintza-antolamenduaren arloko administrazio eskudunek baimenduko dituzte, administrazio hidraulikoak baimena eman ondoren eta ur jabari publikoaren poliziaeremuaren barruan aplikatu beharreko uholde-arriskuaren arloko mugak kontuan hartuta.
- c) Estatuko Administrazio Hidraulikoak baimenduko ditu, Uraren Euskal Agentziak proposatu eta agintaritza urbanistikoak aginduzko txosten loteslea egin ondoren.
- d) Egoeraren berezitasunak kontuan hartuta, baimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emango ditu.

26. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, bizitegi-erabilera berriak honela kokatu behar dira:

- a) Uholde-kotaren gainetik 500 urteko errepikatze-denborarako.
- b) Uholde-kotaren gainetik, 100 urteko errepikatze-denborarako.
- c) Uholde-kotaren gainetik, 100 urteko birgertatze-aldirako, eta, hala badagokio, estankotasun-neurriak hartuta.
- d) Kasu bakoitzean ezartzen den uholde-kotaren gainetik.

27. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiarekin bat etorriz, zubi bat ordezte eskatzen duten hirigintza-jarduketetan, ingurunekeko urbanizazio-baldintzek ez badute uzten zubi berri baterako baldintzak betetzen babesei dagokienez, honako hauek bermatu beharko dira:

- a) 100 urteko errepikatze-denborako uraldietan 10 zentimetrotik gorako goragunerik ez sortzea.
- b) 500 urteko errepikatze-denborako uraldietan 10 zentimetrotik gorako goragunerik ez sortzea.
- c) Jarduketa horiek uholde-arriskua nabarmen murriztea.
- d) Taularen beheko aldea 500 urteko errepikatze-denborako kota koroatzailearen gainetik geratzea.

28. Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa hau da:

- a) Sare ekologiko koherente bat, Batasunaren Intereseko Lekuek (GKL) osatua, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE), KBE horiek eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) bihurtu arte.
- b) Sare ekologiko koherente bat, Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBE) osatua.
- c) Sare ekologiko koherente bat, honako hauek osatua: Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) eta nazioarteko tresnetan jasotako figuren pean babestutako naturaguneak.
- d) Kontzeptu horren ordez, Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa ezarri da berriki Europako araudian, Europar Batasunaren Horizonte 2020 estrategiaren ildotik.

29. Bioingeniaritzako teknika bat aukeratzeko parametro hidraulikoak hauek dira:

- a) Uraldi arrunt handiena eta urteko batez besteko emaria
- b) Abiadura, ertzetako tentsio tangenziala eta sakonera
- c) Manning kopurua eta $T = 100$ urterako emaria
- d) Aldagai hidraulikoekiko independentea da, eta erriberako landarediaren egoeraren arabera baina ez da.

30. Zein araudik erregulatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa?

- a) 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- b) 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

31. Ondorengo definizioetatik, zein dagokio ingurumen-inpaktu larri bati, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera?

- a) Atalase onargarria baino magnitude handiagoa dutenak
- b) Berreskuratzeko neurri zuzentzaile intentsiborik behar ez dutenak.
- c) Ingurunea berreskuratzeko baldintzek prebentzio- edo zuzenketa-neurriak eskatzen dituztenak, eta, neurri horiek hartuta ere, lehengoratzeko denbora luzea behar dutenak.
- d) Natura-balio baten aldaketa iraunkorra edo luzea eragiten duena eta, naturagune babestuen kasuan, izendapena eragin zuten elementuei eta kontserbazio-helburuei eragiten diena.

32. Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskinaren arabera, uholdeak babesteko proiektu bati ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin beharko zaio, egoera naturalean dagoen ibilgu bati eragiten zaionean:

- a) Gutxienez 250 metroko luzeran.
- b) Gutxienez 5 kilometroko luzeran
- c) Gutxienez 500 metroko luzeran.
- d) Beti

33. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak finkatu egiten du ingurumen-inpaktuaren azterketaren gutxieneko edukia. Honako hauek bilduko ditu:

- a) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak; ingurumena zaintzeko programa eta sintesi-dokumentua.
- b) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; ingurumena zaintzeko programa eta sintesi-dokumentua.
- c) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak; ingurumena zaintzeko programa; sintesi-dokumentua eta planoa 1:25.000 eskalan.
- d) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.

34. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritakoak betetzen direla zaintzeko helburuetako bat da:

- a) Obrek eragindako eremuen ingurumen-ezaugarriei buruzko datuak lortzea.
- b) Obrak eraiki bitartean ingurumena babesteko neurriek eragindako kostuak minimizatzea.
- c) Obrak egiteko epea minimizatzea, ingurumena babesteko ezarritako neurriak barne.
- d) Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotako ingurumena babesteko neurrien eraginkortasuna zehaztea.

35. EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera, III. taldeko hezeguneei:

- a) beren araudia aplikatzen zaie
- b) LAPea jasotako araudia zuzenean aplikatzen zaie, udal hirigintza-plangintzarako loteslea dena
- c) udal-plangintzak zona horien babesa ezarri ahal izango du eta haien inguruneke erabileren araubidea ezarri ahal izango du.
- d) ez dute inolako babes-araubiderik

36. Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikularen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua honako hauekin amaituko da:

- a) Ingurumen-inpaktuaren adierazpena
- b) Ingurumen-inpaktuaren adierazpen sinplifikatua
- c) Ingurumen-inpaktuaren ebazpena
- d) Ingurumen-inpaktuaren txostena

37. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, nola esleituko dira kontratuak?

- a) Hainbat esleipen-irizpide erabiliz, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.
- b) Hainbat esleipen-irizpide erabiliz, ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzan oinarrituta.
- c) Lehentasunezko esleipen-irizpide gisa eskaintzaren kalitate teknikoa erabiliz.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

38. Honako eskubide hauetatik, zein EZ zaie aitortzen herritarrei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean?

- a) Baliabide elektronikoak erabiltzean laguntza jasotzeko eskubidea.
- b) Administrazio-dokumentuen kopia kautoak eskuratzeko eskubidea.
- c) Datu pertsonalak isilpean gordetzeko eskubidea.
- d) Administrazio-prozeduran parte hartzeko eskubidea.

39. Zer da ELEBIDE?

- a) Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzua.
- b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2008an abian jarri zuen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua.
- c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2008an abian jarri zuen enplegatu publikoak euskararen arloan prestatzeko zerbitzua.
- d) Administrazioek emandako tituluen baliozkotzeak izapidetzeko ardura duen zerbitzua.

40. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren arabera, zer zortasun mota dago finka baten jabe bati ura edukitzeko edo soberakinak husteko eskubidea ematen zaionean, eta hori tarteko lursailetatik pasarazten denean, jabeei eta urak hartzen edo erortzen diren beheko lursailetakoei kalte-ordaina emateko betebeharrarekin?

- a) Ura ateratzeko zortasuna eta aska.
 - b) Presako estribo-zortasuna eta gelditzeko edo zatitzeko zortasuna.
 - c) Akueduktuaren nahitaezko zortasuna.
 - d) Bide-zorra.
-

ERRESERBA (5 galdera)

41. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, pertsona juridikoak administrazioarekin harremanetan jartzen dira administrazio-prozeduraren edozein izapidetarako:

- a) Bitarteko elektronikoen bidez, legeak hala eskatzen duenean.
- b) Baliabide elektronikoak erabiltzea ala ez aukera dezakete.
- c) Bitarteko elektronikoen bidez nahitaez.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

42. Zer neurri aipatzen da 4/2005 Legean administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko?

- a) Genero-berdintasunari buruzko prestakuntza-programak ezartzea.
- b) Enpresa bakoitzean berdintasun-batzorde bat sortzea.
- c) Arau eta politika publikoak egitean genero-ikuspegia txertatzea.
- d) Genero-bereizkeriagatiko zehapenak ezartzea.

43. Emakida bat Uren Erregistroan inskribatzea:

- a) Inskribatutako ondasuna edozein helburutarako deribatze baimena ematen du, nahiz eta aitortutakoa ez izan.
- b) Emakidaren existentzia eta egoera frogatzeko bitartekoa da
- c) Administrazioaren herri-lanak egiteko baliabidea erabiltzea eragozten du.
- d) Preskribaezina, besterenezina eta enbargaezina da

44. Zer ur-goraldi motak eragiten dute ur-bazterreko lursail bat jabari publiko hidraulikokoa izatea?

- a) Urteko gehieneko hazkundeak
- b) Ohiko gehieneko ur-goraldiak
- c) Ezagutzen diren gehieneko ur-goraldiak
- d) 10 urteko errepikatze-denborako goraldiak.

45. Hauek dira Inglares ibairako karakterizazioa eta proposamenak:

- a) Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan
- b) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan
- c) Ebro mendebaldeko demarkazio hidrografikoaren plan hidrologikoan
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen Plan Hidrologikoan